



Zoilo'ren Uzta

La cosecha de Zoilo

Zaraitzu'ko uskara
Vascuence salacenco

JOSE ESTORNES LASA

Euskaltzaindiko

JARPEN

Orai dira urte bizpor «Erronkari'ko Uskara» liburuxkoa egin nuen Ibaxa-ko mitil-neskatoer gore uskara irakasteko.

Mikel Urmeneta jeina Diputazionean zegon eta, ari eskerrak, moite duran liburuxko kori egin zen eta Izaba'ko ikasguetan orduko mitilek lein eleak uskaraz ikasi tey.

Orduan, ene ustean, bearrekoa zen gaiza berbera Saraitsuko Ibaxan egitea.

Kortarako uskaldun trebe ta xakintsu bat bear nion eta Otsagi'ko Kanbra eta Santxez'tar Koldobika adexkidearenganaino xoan nintzen. Konen bitartez Moso eta Bezunartea'tar Zoilo jauna izaguntu nion.

Ameka urtetatik aintzinara artzay izan zen, bere aitareki lanik. Gore adexkideak anitx onki izangutu zion Saraitsu'ko mendia ta baita ere Erriberara xoiteko bide luzeak. Udan Ori'ko aize eder eta mendi oridundu artean eta neguan Lerin'eko ordoki gogor eta urbagekoak. Kalarik, tempra korietako agituak buruturik bere begi zeru-dunduek dirdiratan zien.

Karta xoan eta karta xin «Saraitsu'ko Uskara» egin ginion. Oray artio argira emoin bage dago.

Baya, konen gainean, gaiza anitx biltu genition eta keki drezatu dur lan kau.

INTRODUCCION

Hace algunos años hice el librito «Erronkari'ko Usakara» para enseñar el roncalés a los chicos y chicas del valle.

El Sr. Miguel Urmeneta estaba en la Diputación, y gracias a él se editó ese librito que yo aprecio tanto y en las escuelas de Isaba los chicos de entonces aprendieron las primeras palabras en vascuence.

Entonces, a mi entender, era necesario hacer la misma cosa en el Valle de Salazar.

Para eso necesitaba un euskaldun (vasco parlante) hábil y sabio y me fui a donde el amigo Luis de Kambra y Sánchez. Por medio de éste conocí al Señor Zoilo Moso Bezunartea.

Fue pastor desde los once años en adelante, trabajando con su padre. Nuestro amigo conoció muy bien los montes de Salazar y también los largos caminos para ir a la Ribera. En verano entre vientos frescos y montes verdes y en el invierno en los duros llanos y sin agua. Así, recordando los sucesidos de aquel tiempo, brillaban sus ojos azulclaros.

Carta viene y carta va, hicimos el «Saraitsu'ko Uskara». Hasta ahora está sin publicar.

Pero, además de esto, reunimos muchas cosas y con ellas he preparado este trabajo.

..*«Ni fanen niz mundutik
Juangoikoak nai duelarik baya xuk
eskribitzen zuena munduan batren
da eta norbaitek leitren du eta
ikusiren die denbrazko gauza
onetarik bat»*

..*«Yo me iré del mundo cuando
Dios lo quiera pero lo que Ud.
escribe quedará en el Mundo y
alguno lo leerá y verán alguna cosa
de este tiempo».*

Zoilo: 9^ogn kartan.

ZOILO MOSO BEZUNARTEA

Partida de nacimiento

Año 1902. N.º 18. Día veintiocho de junio de mil novecientos dos. Yo el infrascrito Párroco de la Iglesia de San Juan Evanjelista de la Villa de Ochagavía, bauticé solemnemente en la Parroquia de la misma un niño que dijeron haber nacido a las tres y media de la tarde del día anterior, hijo legítimo de legítimo matrimonio de Mariano Moso y Mauricia Bezunarte, vecinos de Ochagavía de donde ella es natural y él de Izalzu. Se le puso por nombre Zoilo. Abuelos paternos Juan Miguel Moso y Martina Sanso, naturales y vecinos de Izalzu. Maternos José Tomás Bezunarte y Francisca Ballent difunta, naturales y vecinos de Ochagavía. Fueron padrinos José Tomás Bezunarte y Graciana Moso, Naturales y vecinos de esta Villa a quienes advertí el parentesco espiritual y obligaciones y firmé. Licenciado Rafael Arín.

Partida de defunción

Año 1970. N.º 7. El día catorce de agosto de mil novecientos setenta, a las trece horas, en el Hospital Provincial, en Pamplona, falleció en Comunión con la Santa Madre Iglesia D. Zoilo Moso Bezunarte, natural de Ochagavía, casado con Dña. Blasa de Andrés Sirón, habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia, Unción de los Enfermos y Eucaristía, que le fueron administrados por D. Ricardo Noain, Coadjutor. Con las debidas autorizaciones canónico-legales fue trasladado su cadáver a la Parroquia de Ochagavía y con el oficio del Ritual fue llevado al Camposanto de la Villa y en sufragio de su alma se hicieron funerales en esta Parroquia el día quince. Para que conste firmo. Isidro Garcés.

I. GAZTEZUTUAREN OROIMENAK.

I. RECUERDOS DE JUVENTUD.

1. Artzayen bizia.

Nay dut responditu xuk azken kartan galdegiten xuen gauzak.

Ori'ko puntatik gainbera miriginez Frantzia'ko aldiala lotsagarri da gaxtoz, baya urruniala miriginez ikusten da mendi zati andia eta guzia ordoki eta anitz eder iduri du.

España'ko aldetik urraneko mendia obexago da eta ikusten da Irati'ko oyan andia Aezkoa'ko mugatik karabineroen txabola lartion eta urruniala ikusten dra Nafarro'ko Bardeak eta Erribera'ko berze anitz leku.

Ori'ko txabolen egiteko mirigiten ginuen non zegon belarra anitz usu eta kan aitzurrarekin zotalak egiten gintzan eta kurak zren txabolandako tellak. Txabola barnean eta lurrian esertzen ginuen zur puzka bat trabes eta kura zen eserisik egoteko eta altzineko aldeala leku pixka bat sukaldetako eta gibleko aldiala etzontzia lo egiteko eta bizkar zuretik esertzen gintzan kako batzuk eta kakoetarik tilinton bakotxak guare alforjara aste guziko errekaituekin.

Xaten ginuen goizian bilgorra zopak eta egunazko ermaten ginuen ogi ta txula. Eta artsian berriz bilgorra zopa eta txula.

1. La vida de los pastores.

Quiero contestar las cosas que Ud. me pregunta en su última carta.

Mirando desde la punta de Ori hacia abajo, al lado de Francia, es de miedo por lo malo, pero mirando a los lejos se ve una gran parte de monte y todo llano y parece muy hermoso.

El monte cercano por la parte de España es mejor y se ve la gran selva de Irati, desde la muga de Aézkoa hasta la chabola de los carabineros. Y a lo lejos se ven las Bardenas de Navarra y otros muchos sitios de la Ribera.

Para hacer las chabolas de Ori mirábamos dónde estaba la hierba muy espesa y allí hacíamos con la azada las tascas y ellas eran las tejas para la chabola. Dentro de la chabola y en el suelo poníamos un pedazo de madera cruzado y ese era para estar sentados. Y en el lado de delante un poco de sitio para la cocina y en el lado posterior el camastro para dormir. Y poníamos varios ganchos de la viga de madera y colgando de los ganchos cada uno nuestra alforja con el recado para toda la semana.

Comíamos en la mañana migas y llevábamos para el día pan y tocino. Y en la tarde de nuevo migas y tocino.

2. Ardiak eta akerrak. Tzintzerriak.

Ardiak zren zuri eta klasea txurra. Ezkilak dra elizan meza sonatzen dienak. Ardiek eta akerek ermaten tienak diaitzen tugu tzintzerriak. Akerek ermaten tienak dra anitz andi eta badra irur klase: Kuartizoa, trukara

ta kañona, eta berze batzuk txikin xago ermaten tien auntzek diaitzen dra metaleak. Baya erdaraz berdin diaitzen dra.

Ardien moxtea moxguara diaitzen dugu. Axuriak sortzen dra ertzaro denbran.

Akerrak zer klaseko dren: Badra bi klase, tzintzarri andiak lepoan ermaten tienak daude osatrik ta badra berze batzuk osatu bage baitra akertzantzak, auntzen azkatzeko.

2. Ovejas y machos cabríos. Los cencerros.

Las ovejas eran blancas y de clase «txurra». Esquilas son las que suenan en la iglesia, las que llevan las ovejas y los machos cabríos las llamamos cencerros. Las que llevan los machos son muy grandes y hay de tres clases: kuartizoa, trukara y kañona. Y otras más pequeñas que llevan las cabras se llaman metaleak. Pero en español se llaman igual.

Llamamos mozgua al esquilado de las ovejas. Los corderos nacen en el tiempo de la parición (ertzaro).

De qué clase eran los machos cabríos: hay dos clases, los capados que llevan en el cuello grandes cencerros y hay otros sin castrar, para cria, para cubrir las cabras.

3. Artzay txakurrak.

Oraiko artzay txakurrak diaitzen dra «txumis». Eta, denbaz, otsoen kontra emateko bazren txakur andiak ta diaitzen zren mastinak ta guziek ermaten zien lepoan xoraldi bat itze anitzekin ta puntak kanpoko aldeala ta diaitzen zren karranklak ta zren lepoan libratzeko otsoen presatik.

3. Los perros de pastor.

Los perros de pastor actuales se llaman «txumix».

En tiempos había perros grandes para hacer frente a los lobos y se llamaban mastines y todos llevaban en el cuello un collar con muchos clavos y las puntas por el lado de fuera y se llamaban karranklak (carrancas) y eran para librarse de la presa de los lobos en el cuello.

4. Artzayen bestimentara.

Ni beño anitzekin zarragoko gizonek ermaten zien errekalzak eta eu-riandako aker larru bat erraitan diaitzen baitzen espalderoa. Eta ardi edo axuri andi larru bat barrenetik puzka batian ebakirik azpien ta bularran tapatzeko, ta diaitzen zen delanteroa. Bi larru koyen nonbreak eztra uskaraz baya eztoket xakin ion ere nola zren uskaraz. Gero leneko gizonek ermaten zien lepoan ingurateko etxen eginik oyalezko txamarta bat ta manga bat puntatik kuerda batez lotu ta barnean ermaten zien ogia ta txulara egunazko. Zangoetan abarkak eta txatarrak.

4. El vestido de los pastores.

Los hombres mucho más viejos que yo llevaban calzones y para la lluvia, en la espalda, una piel de cabra que llamaban espaldero. Y una piel grande de oveja o de cordero por dentro y cortada un poco por debajo para tapar el pecho y se llamaba delantera. Los nombres de esas dos pieles no son vascos pero no puedo saber ni nadie cómo eran en euskara. Después los hombres de antes llevaban para rodear el cuello una txamarta hecha de paño en casa y una manga atada por la punta con una cuerda y dentro llevaban el pan y el tocino para el día. En las piernas abarcas y peales.

5. Artzayak zer klaseko zren. Zer xaten ginuen.

Gizonak ta zomait neskato ere faten zen ene gaztezutuan, Zaraitzu'ko bortuetan, ezpaitzren ardiak saizten, artzayen lana aisa zen, ardiak segi ta kaso egin, etzitela nas berzen saldoakin.

Faten gintzan artsetarik saldoarekin korleala ta axuriak emaro ta ongi irauski ta gu gose eta egarri anitzekin sartzen gintzan kabañan ta leimizikorik xaten ginuen txula bana ta zako gaxoa arrapatzen ginuelarik zer deseyurekin ipurdia ertsatzen ginakon egun guzian buruan ardao txestatu bage! Gero berantago xaten gintzan bilgorra zopak ta kura zen abaria. Gero etziten gintzan etzontzian longeinarekin tapatrik baya bigarren abenduan ta izotzilian gaba kain luze nola baita gabaz otzak belliarazten gintzan ta bear ginuen xaiki su egitra berotzeko ta beti kausitzen ginuen txutrik eta uzki suari ta gero uzki alde berotu ta itzultzen gintzan altzin aldean berotzra. Igande oro faten gintzan erriala len mezan entzuntzra eta denbra berian astoarekin aste guziko errekaituak ermaten korleala. Ogi, ardo eta bilgorra. Urdakia etxerik egorten zaukien.

Kala ene gaztezutuko artzay gaxoen bizia eta giñala beti gaizki ikusirik gintzan.

5. De qué clase eran los pastores. Qué comíamos.

Hombres y también alguna chica iba en mi juventud. En los puertos de Salazar si no se ordeñaban las ovejas el trabajo de los pastores era fácil. Seguir las ovejas y hacer caso que no se mezclaran con otros rebaños.

Ibamos por la tarde al corral con el rebaño y los corderos despacio y bien mamados y nosotros con mucha hambre y sed entrábamos a la cabaña. Y lo primero comíamos una chula cada uno y cuando agarrábamos la bota de vino con qué deseo le apretábamos el culo al cabo de todo el día sin probar vino ! Luego, más tarde, comíamos las migas y ésa era la cena. Después nos echábamos en el camastro tapados con la longarina. Pero como es tan larga la noche en diciembre y enero, el frío nos desvelaba y debíamos levantarnos a hacer fuego para calentarnos y siempre nos poníamos de pie y de culo al fuego y después, calentado el lado de atrás, nos volvíamos para calentar el lado de delante. Todos los domingos íbamos al pueblo a oír misa primera y al mismo tiempo con el burro llevábamos al corral el recado para toda la semana. Pan, vino y sebo. El tocino se llevaba de casa.

Esa era en mi juventud la vida de los pobres pastores, y además, siempre estábamos mal vistos.

6. Gaztak nola egiten zren. Tresnak nola diaitzen zren eta gaztaegileak nongo zren.

Gazten egiteko lemizikorik ardiak saizten zren kotxuala ta kotxua bez bezala usten zien kobrezko bexkoala eta denbra berean eznea igaretzen zien etziten fan zikinak bezkoala. Gero saitz bukatu ta ermaten zien bexkoa txabolala edo bordala ta esertzen zien bezkoa su ondoan eznea epel zaiden. Gero gatxiagiara txatar busti pixka batean berazten zien ta gero lurrezko kaxola batean ezne txorta batekin nastekaten zien urtu artio ta gero egozten zien bezkoala ta emaro emaro asten zen eznea loditzen kuajatu artio, eta kura diaitzen zen gaztanbara. Ordukoz bexkoari onkituz esertzen zien xelte bat ta xeltean gañan zurezko ontzi bat espreski eginik gazten egiteko ta diaitzen xorxea ta konen gañan gaztaxala. Ta gero bi eskuekin emaro emaro berexten zien gaztanbara gaxuretik ta sartzen zien gaztaxala ta kan finki ertsa bi eskuekin berex zadien ongi gaxura eta erortzen zen xorxetik bexkoala, ta ertsatuz bezala noinzian beinka berotzen zien gaztara su ondoan, ta berriz xorxeala itzul ta ertza, ta kala bukatzen zen gaztan lana.

Eznea etzen beinguaz kuajutzen ta bigarren aldiz kuajutzen zena diaitzen zen zenbrona, eta konek etzuen berze lanik baizik bi eskuez bexkotik elki eta zakutuan sar ta zakutua itze batetarik tilinton eseri eta kan txukatzen zen.

Bi gauzak on kurak ezneari gendu ta oraño baratzen zen bexkoan ezne errestroak ta kura diaitzen zen gaxura ta ematen zien txerrier.

Gazta egileak nik entzun dut lemizikorik asi zrelarik egiten xin drela Frantzia'rik erakustra baya gero bakotxak bereak egiten ztuen.

6. Cómo se hacían los quesos. Cómo se llamaban los utensilios y de dónde eran los queseros.

Para hacer los quesos lo primero se ordeñaban las ovejas al cuevo y cuando el cuevo estaba lleno se vaciaba al caldero de cobre y al mismo tiempo pasaban la leche para que no fueran las porquerías al caldero. Después, terminado el ordeño, llevaban el caldero a la chabola o borda y ponían el caldero al lado del fuego para que se templara la leche. Luego separaban el cuajo en un trapo un poco mojado. Y después en una cacerola de barro mezclaban con un chorrito de leche hasta disolverse y luego lo echaban al caldero y despacio despacio, empezaba la leche a engrosar hasta cuajarse y aquello se llamaba cuajada. Entonces al caldero le arrimaban un taburete y sobre el taburete una vasija de madera expresamente hecha para hacer quesos y que se llamaba «xorxea». Y sobre ésta la «gastaxala» o molde. Y después, con las dos manos, poco a poco, separaban el requesón del suero. Se ponía en el molde y allí se apretaba fuertemente con las dos manos para que se separara bien el suero y caía del «xorxe» al caldero. Y

apretándolo de cuando en cuando calentaban el queso al lado del fuego y de nuevo volver al «xorxe» y apretar.

Y así terminaba el trabajo del queso. La leche alguna vez no se cuajaba y la que se cuajaba a la segunda vez se llamaba «zenbrona», requesón. Y éste no tenía otro trabajo sino sacarlo con las dos manos del caldero y meterlo en el zacuto y ponerlo colgando de un clavo. Y allí se secaba.

Se quitaban esas dos cosas buenas a la leche y todavía quedaban en el caldero rastros de leche y a eso se le llamaba «gaxura» y lo daban a los cerdos. Yo tengo entendido que los primeros que empezaron a hacer queso vinieron de Francia a enseñar pero después cada uno hacía los suyos.

7. Erribera'la fateko bideak.

Ardiek Erribera'la fateko batie irur bide baya yayuenak igaretzen dra bidatarik: Bata igaretzen da Agoitze'rik eta berzea Irunberri'rik ta nik eseriren tut erriak dakitana bezala ezpaitakit uskaraz nola diaitzen dren bizpur baizik.

Ezkaroz'eko menditik; Eaurta'ko menditik; Alkoatze'ko menditik; Arizkun'eko menditik; Zariketa'ko menditik; Rala'ko menditik; Agoitz'eko errian erditik; Ekay erritik; Billabeta erritik; Urroz Billa erritik; Iruate erritik; Irundain erritik; Aranguren menditik; Zolina erritik; Tajonar menditik; Noain erritik; Beriain eritik; Subiza erritik. Gero igaretzen ginuen Perdon'eko sierrara: kan ezta erririk. Gero lemiziko erria Muruzabal eritik; Obanos erritik; Puente la Reina erritik, Mendigorria erritik.

Ardi anitzendako kan bukatzen zen bidea baitaude urran Larraga, Artajona ta Lerin, eta irur erri kaitan bazen korliza anitz ta ardi anitzek kan igaretzen zien neguak.

Bigarren ardi bidea igaretzen da:

Ezkaroz'eko erritik; Orontze'ko erritik; Esparza'ko erritik; Ibizta'ko erritik; Itzalle'ko menditk; Adoain'eko menditik; Zabalza'ko menditik; Napal'eko menditik; Murillo Berroya'ko menditik; Irunberri'ko erritik; Oibarre'ko erritik; Kaseda'ko errian ondotik. Eta Kaseda igarerik puzka bation altzina ta konen mendian badago Ermita bat eta kan dagon Sandua da ene tokayo San Zoilo ta ermitan pareteak onkituz igaretzen dra bidea ta ardiak.

Ta altzinago Kaseda'ko mendian ere badao kaserío bat diaitzen baita Lasaga ta gero ya bidea sartzen da Nafarro'ko Bardean eta kandik faten dra anitz Arague aldeala. Ardien bide guziak diaitzen dra kañadara ta erdaraz berdin diaitzen tugu (la cañada). Erriak daude eseririk drena bezala goitirik gainbera.

7. Los caminos para la Ribera.

Hay tres caminos para ir a la Ribera las ovejas, pero la mayor parte van por dos. Uno pasa por Aoiz y el otro por Lumbier y yo pondré los pueblos como yo los sé pues no se cómo se llaman algunos en uskara.

Por el monte de Ezcároz; por el monte de Jaurrieta; por el monte de Elkuaz; por el monte de Arizkuren; por el monte de Zariketa; por el mon-

te de Bala; por medio del pueblo de Aoiz; por el pueblo de Ekay; por el pueblo de Villaveta; por el pueblo de Urroz Villa; por el pueblo de Iraute; por el pueblo de Irundáin; por el monte de Aranguren, por el pueblo de Zolina; por el monte de Tajonar; por el pueblo de Noáin; por el pueblo de Beriáin; por el pueblo de Subiza; luego pasábamos a la sierra del Perdón, allí no hay pueblo; después por el primer pueblo, Muruzabal; por el pueblo de Obanos, por el pueblo de Puente la Reina, por el pueblo de Mendigorria.

Para muchas ovejas allí terminaba el camino, pues están cerca Larraga, Artajona y Lerín y en estos tres pueblos había muchas corralizas y muchas ovejas pasaban allí los inviernos.

El segundo camino de ovejas pasa: por el pueblo de Ezcároz, por el pueblo de Oronz; por el pueblo de Esparza; por el pueblo de Ibilzieta; por el monte de Izal; por el monte de Murillo Berroya; por el pueblo de Lumbier; por el pueblo de Aybar; cerca del pueblo de Cáseda; y pasando Cáseda, un poco adelante, y en aquellos montes, hay una ermita y el Santo que está allí es mi tocayo San Zoilo y tocando las paredes de la ermita pasan el camino y las ovejas.

Y más adelante, en el monte de Cáseda, hay un caserío que se llama Lasaga y después ya el camino entra en la Bardena de Navarra y de ahí van muchos al lado de Aragón.

Todos los caminos de las ovejas se llaman cañadas y lo mismo los llamamos en castellano.

Los pueblos están puestos como de arriba a bajo.

8. Erribera'n. Bilgorra Zopak. Baltsako ura.

Nay dut erran Erribera'n artzay ebiltzen gintzalarik zer bizi gaxtoa egiten ginuen gaizki xanik eta gaizki lo eginik kabañetan. Korle guzietan bazen kabañara artzayendako.

Neguan xaten gintzan bilgorra zopak argitu gabe ta yagorik xan gabe faten gintzan mendiala saldoarekin ta egunazko ermaten ginuen ogi puzka bat mutxilan.

Bedatzean eguna anitz luzatzen zelarik ta bero egiten zuelarik ogia txukatzen zen anitz eta Erribera'n ezpaitago iturri bat ere baizik baltsa batzuk lurrian eginik eta euri anitz egiten duelarik betetzen dra urez ta korlizetako alorren lanzaleak faten zrelarik egordikoan aberen edaratra mando kurak sartzen zren baltsan erdialartio ta ur guzia bularten zien eta anitz aldiz ikusten ginuen nola pixa egiten zien baltsa barnean ta gero guk artsandean, egarri egiten balimaguinen, bearko ginuen baltsan auspeska eseri eta ur bularri kartarik edan mando pixaz nasirik ezpaitzen berzerik.

8. En la Ribera. Las migas. Agua de balsa.

Quiero decir qué vida mala hacíamos los que andábamos de pastores en la Ribera, mal comidos y durmiendo mal en las cabañas. En todas las corralizas había cabaña para los pastores.

En el invierno comíamos las migas sin aclarar (antes de amanecer) y sin comer nada más íbamos al monte con el rebaño y llevábamos un poco de pan en la mochila para el día.

Como el día alargaba mucho en primavera y hacía calor, el pan se secaba mucho. Y como en la Ribera no hay ni una fuente sino algunas balsas hechas en tierra y cuando llueve se llenan de agua, y los trabajadores de los campos de las corralizas iban al mediodía a abreviar los animales, aquellos mulos entraban hasta la mitad en la balsa y enturbiaban toda el agua. Y muchas veces veíamos como orinaban dentro de la balsa y después nosotros en la tarde, si teníamos sed, teníamos que ponernos boca abajo en la balsa y beber de aquella agua turbia mezclada con la orina de los mulos, pues no había otra.

9. Dositeo Otxoaren txakurkoa.

Nik amairur urte nituelarik ginaunden guaren ardiekin Lerin'eko korliza batean eta gure mугan bazuen Izaba'ko Dositeo Otxoa jaunak bere korliza propioa ta negu oro ertzaro denbrara igareten zuen ardi ta axuriek eta artzayekin. Korlean baitzuen kuarto eder bat bere ogatze onarekin.

Urte kartan bigarren abenduko emeretzigarren egunian erori zen elur puzka andi bat ta artsalde batez agertu zaikun gure korliala mastin txakurko bat galdrik ta guk beriala pentsatu ginuen Dositeona izanen zela eta gau kartan xatra eman ginakon eta biramunian ene Aita zenak egorri nintzan txakurkoa besapean Dositeon korliala ta ikusi nintzalarik Dositeok txakurkoarekin zerua idiki zayon gizon kari. Beriala diaitu zuen bere maxterra Jazinto, gizon andia ta anitz azkar ta bizargorria zen eta bien artian nik eztakit zomat festa egin zakoyen txakurkoari eta Natibitate altzineko egunak baitzren nik eztakit Dositeo jaunak zomat turronek eta girlatxe eman zantan.

Urak biak, kain Nausia nola maxterra, anitz kontent baratu zren beren txakurkoarekin eta ni ere, mutiko kontu, anitz kontent fan nintzan guauren korleala sakolak turronek eta girlatxez beterik.

Dositeo korlizara Lerin'eko mendian zen.

9. El cachorro de Dositeo Ochoa.

Teniendo yo trece años estábamos con nuestras ovejas en una corraliza de Lerín y en nuestra muga tenía el señor Dositeo Ochoa de Isaba su corraliza propia y todo el invierno hasta la época de la parición, lo pasaba con sus ovejas, corderos y pastores. Tenía en la corraliza un hermoso cuarto con su buena cama.

En aquel año, el día diecinueve de diciembre cayó bastante nieve y por la tarde se nos apareció en nuestra corraliza un cachorro de mastín perdido. Y nosotros enseguida pensamos que sería de Dositeo y aquella noche le dimos de comer y al día siguiente mi difunto padre me mandó con el cachorro bajo el brazo a la corraliza de Dositeo y cuando me vió Dositeo con el cachorro se le abrió el cielo a aquel hombre: enseguida llamó a su mayoral

Jacinto¹ era hombre grande y muy fuerte y de barba roja y entre los dos no sé cuántas fiestas le hicieron al cachorro y como eran los días anteriores a la Navidad, no sé cuantos turrone y guirlaches me dio el señor Dositeo.

Los dos, tanto el amo como el mayoral, se quedaron muy contentos con el cachorro y yo también, el chico del cuento, me fui muy contento a nuestra corraliza con el zurrón lleno de turrone y guirlaches.

La corraliza de Dositeo estaba en el término de Lerín.

10. Artzaya eta Koletona.

Kontu kau nik eznuen izaundu baya gizon zarrer aitu dut ta sinisten dut kala izanen dela.

Otsagi'n bada etxe bat diaitzen dena Koletona eta denbaz bazien erriko ardi saldo andienetarik bat eta bein Erribera'la saunsten zrelarik ardiekin gau batez baratu zren mendian ta gabaz seguruago. Artzayak lokartu zren ta txakur mastina ere bai. Ta otsoak ezpaitzuen logalerik ta anitz abil baitzen ixil ixila eldu zen ardi saldo andian bazterriala, eta bay emen zen artzay ezpaitzuen baizik ardi bat ta otsoak kausitu zuen karen arreatzra ta erman zuen ta fundikatu zuen.

Gero sauntsi zelarik Koletón etxeke nausia korlitzala ertzaroalako, masterrak erran zakon zer agitu zayen ta nausiak beriala erran emen zuen artzayari: —Señala zak ene ardietarik bat obenen iduritzen zaikana iretako. Ezpalitz ire ardia saldoan egon, enetarik bat bear zikan otsoak erman.

Eta artzayak kala egin zuen.

10. Koletona y el pastor.

Este cuento yo no lo he pasado pero lo he oído a los hombres viejos y creo que habrá sido así.

Hay una casa en Ochagavía que se llama Koletona y en tiempo tenía uno de los mayores rebaños del pueblo y una vez cuando bajaban a la Ribera con las ovejas, se pararon una noche en el monte, y para más seguridad en la noche. Los pastores se durmieron y el perro mastín también. El lobo que no tenía sueño y era muy listo, callando callando, se acercó al extremo del gran rebaño, y se dice que había pastor que no tenía más que una sola oveja y el lobo acertó a coger la suya y se la llevó y la liquidó.

Después, cuando bajó el amo Koletón a la corraliza para la parición, el mayoral le dijo lo que había pasado y el amo enseguida le dijo al pastor: señala para ti la que mejor te parezca de entre mis ovejas. Si no hubiera estado tu oveja en el rebaño, el lobo hubiera tenido que llevar una de las mías.

1. Jacinto Gorria

11. Emaro xago.

Oray duela bizpur urte goiz baten emazte bat fan zen auntzan ermatra auntzaldia biltzen zen lekuala. Ta itzulten zelarik xuntatu zen karrikan berze emazte bere iduri batekin ta baratu zren xardokitzen. Eta artsaldian auntzaldia itzuli zelarik menditk, oraño kan zauden biak, ta ikusi zelarik auntzaldia, erran zuen batak berzeari: –Ayey Ama! Kau alkea auntzak xiten tun, banian kemendik etxera. Berze egun batez xardokiren nagun emaro xago.

11. Más despacio.

Ahora hace unos años, una mañana una mujer fue a llevar las cabras al sitio donde se reúne la cabrería y cuando volvía se juntó en la calle con otra mujer por el estilo y se pararon hablando. Y en la tarde, cuando la cabrería volvía del monte, todavía estaban las dos allí y, viendo la cabrería, dijo una a la otra: –Ayey amá! Qué vergüenza, vienen las cabras, me voy de aquí a casa. Otro día hablaremos más despacio.

12. Gaur ogiak txut.

Nay dut kontatu nik emezortzi urte nituelarik abuztuko ilabeteko gau batez zer agitu zaidan. Orzilaria zen eta fan nintzan Ponpoxon barberiala biloan moxta eta denbra kartan ez ginuen Otsagi'n berze barberiarik eta korrengatik agitzen zen ardura baitzegon jendez beterik eta gau kartan ere bay eta kara berant faten zena berant elkiten zen eta baratu gintzan azkenak laur mutil. Irur erriko gintzan eta laugarrena errizkanpoko zen eta berdin erran zatan nor gintzan: Zezilio Laspalas bat, Roman Esarte bida, eta denbra kaitan bazien Luisak etxekoek mutil bat artzaytako Alzorrik'eko erritik baitzen eta Karlos diaitzen baitzen, kura irur eta ni. Eta laurer biloak moxtuta, baxotxa guaren etxetra fan biarrian fan gintzan Otxoaniala sauntzian baitago eta denbra kartan ematen baiztien kafeak eta kopak eta norbaitek nay balimazuen xan ere bay ematen zien. Eta orduko Otxoan etxalabara Juana diaitzen zen eta neskato eder eta ona zen eta guk erran ginakon nay ginuela zerbait xan ya emanen zaukienez eta responditu zaukien: –Bay, bay, emanen dauziet baya ixtante bat berandren du prestatzen dutanekoz. Eta guk erran ginakon –Eztu inport, xuk prestatzen xuen artian, guk bear dugu erri guzitik rondatu. Eta Karlos Alzorrikekoak baitzakien anitz ongi gitarren sonatzen eta kantatzen ere bay. Gitarrara artu eta sauntzi gintzan karrikala eta arrankatu gintzan karrikara gaindi guaren rondarekin eta igare gintzan Oxaban atetik, Dukean atetik, Nabarro Jabaten atetik, Xabalkoala gero. Ilintxetan karrikatik elki gintzan karreterala eta gero karreterara gora eta eldu gintzalarik Bornasen etxe pariala ikusi ginuen Urrutia'ko barridean Aretzen etxe gañetik ke anitz elkitzen zela eta orduan gu lotsatu gintzan eta erran ginuen: –Ayey, ama! Tenore kontan kainbat ke, etxe kori sutan dago eta orduan Romanek ugaldia laisterkan igare zuen eta Aretzen atiala eldu eta bi kazka andi indar guziarekin eman ztuen pikaportian eta orduko etxekoandrea Paskuala diaitzen baitzen eta bellirik baitzegon beriala legoala elki zen eta orduak Romanek erran

zakon eztaukizia etxea sutan ote ke anitz elkitzen xu. Eta emaztiak responditu zakon: –Ez, ez, eztaukixugu etxea sutan, gaur ogiak txut eta orai labia biztu xut eta ke kori labetik elkitzen xu.

Eta Romanek aitu zuelarik kura berriz ugaldia laisterkan igare zuen gu-regana eta laurok xuntatu eta fan gintzan guaren rondarekin Otsoaniala eta ordukoz Juanak prestatu zauzkien magra batzuk anitz zabal eta aski lodi pimenton batzurekin anitz goxo zauden eta bizpurna ardo txorta edan gintzan bakotzak eta denbra kartan gaba kain fite nola igareten baita fan gintzan bakotxa guaren etxetra argiten zegolarik.

A Jauna! emezortzi urtetako kontuak. Zer denbra onak izan zren kurak! enetako baya igare zren eta eztra itzuliren, baya oraño botzik ikusten niz eta Jangoikoari eskerrak ematen tut kemen bainago kontatzeko.

12. Hoy tenemos pan (Masada de).

Quiero contar lo que me sucedió una noche del mes de agosto cuando tenía dieciocho años. Era viernes y fui a la barbería de Ponpoxo a cortarme el pelo y en aquel tiempo no teníamos en Ochagavía otra barbería y por eso sucedía frecuentemente que estaba llena de gente y también en aquella noche y el que iba allí tarde salía tarde y nos encontramos los últimos cuatro muchachos. Tres éramos del pueblo y el cuarto era forastero y lo mismo es que diga quienes éramos: Uno Cecilio Laspalas, Román Esarte el segundo y un muchacho que tenían por pastor los de Casa Luisa, que era del pueblo de Alzorritz y que se llamaba Carlos, esos tres y yo. Y los cuatro, cortado el pelo, en lugar de ir cada uno a su casa, fuimos a casa de Ochoa que está bajando y que en aquel tiempo daban café y copas y también de comer si alguno quería. Y la hija de Ochoa de entonces se llamaba Juana y era una muchachita guapa y buena y nosotros le dijimos que queríamos comer algo y a ver si nos daría y nos respondió: –Sí, sí, os daré pero tardará un instante para cuando lo prepare. Y nosotros le dijimos: –No importa, mientras tú lo preparas, nosotros tenemos que rondar por todo el pueblo. Y como Karlos el de Alzorritz sabía tocar la guitarra muy bien y también cantar, tomó la guitarra y bajamos a la calle y arrancamos calle arriba con nuestra ronda y pasamos por la puerta de Oxaban, por la de Duke y por la puerta de Nabarro Jabat y después a la de Xabalko. Por la calle de Ilintxeta salimos a la carretera y luego carretera arriba y cuando llegamos a la par de la casa Bornas vimos en el barrio de Urrutia, por encima de la casa de Aretz, que salía mucho humo y entonces nos asustamos y dijimos: –Ay, amá! Tanto humo a esta hora, esa casa está ardiendo y entonces Román pasó corriendo el río y llegó a la puerta de Aretz y dio un gran golpe con toda su fuerza al picaporte y entonces la señora de la casa que se llamaba Pascuala y que estaba levantada, salió a la ventana y entonces Román le dijo no sabes que la casa está ardiendo saliendo mucho humo y la mujer respondió: –No, no, no tenemos la casa ardiendo, hoy tenemos masada y ahora he encendido el horno y ese humo sale del horno.

Y, cuando Román oyó eso, pasó enseguida el río hacia nosotros y los cuatro nos juntamos y fuimos con nuestra ronda a casa Otxoa y para entonces Juana nos había preparado varias magras muy anchas y bastante re-cias, con algunos pimientos morrones que estaban muy buenos, y unos

cuantos tragos de vino nos bebimos cada uno y, como el tiempo se pasaba tan rápido, en aquella noche nos fuimos cada uno a nuestra casa cuando amanecía.

¡Ay Señor! ¡Los cuentos de los dieciocho años! ¡Qué buenos tiempos fueron aquellos! Para mi pasaron y no volverán, pero todavía me veo a gusto y doy gracias a Dios pues estoy aquí para contarlo.

12. Gure dirua diabruandako.

Ene gaztezutuan izan ginuen Otsagi'n banko bat diaitzen baitzen Agrikolara eta egun on batez mankerrot egin zuen eta bankoa zegon etxean bazien tienda ere. Eta berri gaxtoa xakin, biramun goizian, fan emen zen aski goiztar emazte bat dirun elkitra. Bankoan etxeko gizona tiendan zegon eta emazte kura sartu zen, eta egun onak gizonari eman, gizonak galdegin zakon zer nay zuen, ustez tiendala faten zen zerbait erostra.

Emaztiak respondatu zakon: –Ez nixu ez tiendala xiten, diru elkitra xiten nixu.

Gizonak erran zakon: –Bay, diru elkitra baya bankoa ertsirik dioxu.

Emazteak: –Aurra! bankoa ertsirik dagola eta eztaukezia idiki edo zer!

Gizonak: –Bay, baya mankerrot egin dixu.

Emazteak: –Ay, mila demonioa! kori gaxtoago xu baya diruak emanen al dauzkitxe arauz.

Gizonak: –Bay ezta aisa izanen emanen tiela guziak xa ez.

Emazteak: –Bay, bay ,gure dirukoak norendako, diabruandako.

13. Nuestro dinero para el diablo.

En mi juventud tuvimos en Ochagavía un banco que se llamaba La Agrícola y un día hizo bancarrota y en la casa en que estaba el banco había una tienda también. Y al saberse la mala noticia, al día siguiente, una mujer fue bastante temprano a sacar el dinero. El hombre del banco estaba en la tienda y aquella mujer entró y dió los buenos días al hombre, y él le preguntó qué quería, creyendo que iba a la tienda a comprar algo.

La mujer le respondió: –No vengo a la tienda, vengo a sacar dinero.

El hombre le dijo: –Sí, a sacar dinero pero el banco está cerrado.

La mujer: –¡Aurra! El banco está cerrado pero no lo puedes abrir o qué!

El hombre: –Sí, pero ha hecho bancarrota.

La mujer: –¡Ay, mil demonios! Eso es peor, pero tal vez me puedan dar los dineros.

El hombre: –Sí, pero no es fácil que den todos, no pues.

La mujer: –Sí, sí, nuestros dineros para quién, para el Diablo.

14. Ni ezin nintzan.

Bear dut kontatu uda batez Amaberjiña abuztuko gaba, nore adixkidekin guzia larrutu ginuen koitan eta fan gintzan bakotxa guaren etxetra

argirik zegolarik. Eta guk egun kartan bear ginuen eultzi egin baya lenik bear nituen bi karga bal alorretik erauntsi eultzialako, konke nik ogatzea txaskatu gabe zeitako arropara gendu eta asteguntakoa santzi eta manduari bastara eta bal zamukak eseri eta fan nintzan balen bila. Bi biajeak erauntsi eta eultzia edatu ginuen. Gero fan gintzan etxera askaltra kala usaiten baitzen. Baya nik eznuen askaria txeste ez painuen goserik. Gero fan gintzan larrañala eta baginuen gure manduan laguntako kanpoko berze abre bat, baya gure mandua zen anitz eultzilari gaxto eta etzauken iork ere laister eginaraz baizik nik. Konke ni goiz guzian abren ebiltan eta eserten banintzan indarraxean gañan lokarten nintzan eta erorten, konke goiz guzian oñez. Botzik ikusi nintzan eldu zelarik egordi. Berziak bazkalten eta ni ezin nintzan eta bazkal bukatu zelarik ene aita zenak deitu nintzan eta lo pixka bat egin bainuen, burua arrotu zen eta artsaldea obekixago igare nuen.

Kontu konek eginen tu xiten den Amaberjina abuztuko egunian berrogei ta zazpi urte eta nik bizi guzia igare dut lanan pean eta korren guziagatik eztakit zer ixil eta zaloy igare dren kainbat urte guart eman gabe.

14. Yo no podía más.

Voy a contar de un verano (como) la noche de la Virgen de agosto con mis amigos pelamos toda la noche por ahí y fuimos cada uno a nuestras casas cuando estaba de día. Y nosotros en ese día teníamos que trillar, pero primero tenía que llevar dos cargas de fajos del campo a la era para trillar, así que sin probar la cama, quitar la ropa de fiesta y vestir la de trabajo, ponerle al macho el baste y los ganchos de acarrear y me fui a buscar los fajos. Llevados los dos viajes extendimos la parva. Luego fuimos a almorzar a casa como se acostumbraba. Pero no probé el almuerzo pues no tenía hambre. Luego fuimos a la era y teníamos para ayudar a nuestro mach otro animal de fuera, pues nuestro macho era muy mal trillador y nadie lo podía hacer correr sino yo. Así que toda la mañana andando los animales y si me sentaba en el trillo me dormía y me caía, conque toda la mañana de pie. Contento me vi cuando llegó el mediodía. Los demás comiendo y yo no podía y habiendo acabado de comer, mi padre difunto me llamó y, hecho un poco de sueño, la cabeza se despejó y pasé mejor la tarde.

Este cuento hará en el primer día de la Virgen de agosto cuarenta y siete años y yo he pasado toda la vida bajo el trabajo y por eso no sé qué callados y suaves han pasado tantos años sin darme cuenta.

15. Oro duenari ageri zayo.

Urruneko denbra kartan, Gares'eko alkate batek etzuen baizik atorra bat eta Korpus Kristi egunean bear baitzuen fan meza nausiala eta gero prozisionan. Bere emazteak xagutu zakon atorrara eta txukatxeko edatu zuen erri bazterren malda batzurretan, eta fan zelarik atorran bila, bere senarra alda zadian, ikusi zuen etzegola kan atorrara, ebatsi zokoyen. Itzuli zen etxera pentsatzeko dena bezala anitz enfadatrik eta kala ikusi zuelarik bere senarrak erran zakon zer agitzen zayon eta respondatu zakon: —Ora-

ño erraten duka agitzen zaidan, ire atorrara naukikan erri baztarrean malda batzurretan txukatzen eta ebatsi dadyek.

–Oro erman duenari eni beño falta yago eginen zakonan. ¿Eztuna bay koitan zomait tela zuri puzka?

–Bay, batiat.

–Elkizkin, ikusiren dun zer fite konpontzen dugun guzia.

Eseri zien lepoan tela zuri puzka bat orratxikin batzurez ongi aseguratik eta iduri zren atorra ermaten zuela eta bragetatik berze tela zuri pixka bat eta denbra kartan gizonak kaparekin ebiltzen baitzren, kapara santzi eta fan zen erriko etxeala eta eldu zelarik kapara idiki zuen eta ministroa kan baitzegon atean bereala ikusi zakon bragetako txerrenga zuria eta us-tez atorrara zen erran zakon:

–Alkate jauna, atorrara ageri zaixu.

Eta respondatu zuen: –Oro duenari ageri zayo.

15. Al que tiene se le ve.

En aquellos lejanos tiempos, un alcalde de Puente la Reina no tenía más que una camisa y el día de Corpus Cristi como tenía que ir a misa mayor y después a la procesión, su mujer se la lavó y para que se secara la tendió a la orilla del pueblo en unas matas y cuando fué a buscarla, para que su marido se mudara, vió que no estaba allí, se la habían robado. Volvió a casa como es de suponer muy enfadada y cuando la vió así su marido le dijo a ver lo que le pasaba y le contestó: –Aún dices lo que me pasa, tenía tu camisa en unas matas de la orilla del pueblo secando y me la han robado. –Al que la ha llevado más falta que a mi le haría ¿No tienes por ahí algún trozo de tela blanca? Sí, ya tengo. –Sácalos, verás qué pronto arreglamos todo.

Pusieron en el cuello un trozo de tela blanca bien asegurado con unos alfileres y parecía que llevaba camisa y de la bragueta salida también una tirita y en aquellos tiempos que andaban los hombres con capa, se puso la capa, y se fue a la Casa de la Villa y cuando llegó abrió la capa y el alguacil que estaba en la puerta en seguida vio la tirica blanca de la bragueta y pensando que era la camisa le dijo: –Señor Alcalde, que se le vé la camisa. Y respondió: –A todo el que tiene se le vé.

II. KONTUAK.

II. CUENTOS.

1. Kemen ezpaitako apez bat ere.

Bein elki zren paseura automobillan senar emaztegay pare bat eta etxakin nola edo zer automobilla elki zen carreteratik eta eman zuen buruzkainki bat eta senargaya il zen ixtante kartan, eta andregaya gaizki baratu zen eta bizi izan zen zomait egunez baya azkenean il zen ura eta fan zen

zeruala eta atean xo zuen eta elki zen San Pedro idikitza eta erran zakon neskatoak:

–Nik zeruan sartzeko nay noke konsatu.

Eta San Pedrok respondatu zakon:

–Naybalimadun konsatu bear izanen dun itzuli lurreala, kemen ezpaitago apez bat ere.

1. Aquí no hay ni un solo cura.

Una vez salieron a pasear en coche una pareja de novios y, sin saber cómo ni qué, se salió el coche de la carretera y dió una vuelta de campana y el novio murió en el acto y la novia quedó mal y vivió algún día pero al fin murió también ella y fue al cielo y llamó a la puerta y salió San Pedro a abrirle y le dijo la moza:

–Yo para entrar en el cielo quisiera confesarme.

Y le contestó San Pedro:

–Si quieres confesarte tendrás que volver a la tierra porque aquí no hay ningún cura.

2. Ogey ta amar errotazay.

Itzaltzu erriko etxe batetik bi anaye ardiekin saunsten zrelarik korlizala Aragueko erri batetik igareten zrelarik emazte batek galdegin emen zuen bi aurridetarik zarrenari, nongo zren ta gizonak egia erran emen zuen Itzaltzu'ko zrela. Ta emaztiek nay baititie gauza guziak xakin, berriz galdegin emen zuen erria andi zenez ta gizonak respondatu emen zuen:

–Soixu andi izanen denez baititugu ogey ta amar errotazay.

Emazte karek kura aitu zuelarik arritrik baratu zen, baya nauski etzakon jinetsi ta ez konprenditu ere baya gizonak egiara erran zakon.

Itzaltzu'n bazren orduan ogey ta amar etxe ta bazien erriko errotara garia, garagarra, zalkea ta xerua ta kan eoten zien bakotxak beretako ta korrengatik baizren Itzaltzu'n kainbat errotazay nola etxe.

2. Treinta molineros.

Dos hermanos de una casa del pueblo de Izalzu, bajando a la corraliza, cuando pasaban por un pueblo de Aragón, dicen que una mujer preguntó al más viejo de los hermanos, de dónde eran y el hombre le dijo la verdad, que eran de Izalzu. Y como la mujer quería saber todas las cosas, de nuevo dícese que preguntó si el pueblo era grande y el hombre le respondió:

–Mira si será grande que tenemos treinta molineros.

Aquella mujer cuando oyó aquello se quedó asombrada, pues no lo podía creer ni tampoco comprender que el hombre decía la verdad.

Había entonces en Izaldu treinta casas y ya había molino del pueblo, el trigo, la cebada, la veza y el gerón los molían allí cada uno para sí y por eso había tantos molineros como casas.

3. Nago niaur solo.

Gizon batek bazuen bere etxe ondoko korle batean amabi ollo eta ollarra eta gau batez ebatsi zazkoyen amabi olloak eta eutzi zien ollarra solo, eta kari eseri zakoyen lepotik ari pixka batekin tilinton papel bat eta eskribitrik erraten zuen:

–Nago niaur solo goizeko oron bataz geroz.

3. Estoy yo solo.

Un hombre tenía en un corral cerca de su casa doce gallinas y un gallo y en una noche le robaron las doce gallinas y le dejaron sólo el gallo y a éste le pusieron colgando del cuello, con un poco de hilo, un papel y escrito que decía:

–*Estoy solo desde la una de la madrugada.*

4. Ez yut deitu, ez.

Anitz aldiz agitzen dena bezala, egun batez senar emazte batzuk akartu zren eta ondorean bizpur gabez lo egin zien berexirik bakotxa kuarto batean, baya gau batez etzin zen senarra len eta gero fan zen emaztea ta ox zuen kuartoko atean:

–Kax, kax, kax.

Eta senarrak errespondatu zakon barnetik zer nay zuen eta emazteak erran zuen:

–Deitu nuka?

–Ez yut deitu, ez, baya nola ikusten baitut nay dunala xuntatu enekin, sar adi.

Emaztea botzik ikusi zen eta sartu zen kuartuala eta gero ogatzeala bere senarrangana eta kan bereala egin ztien bakeak.

4. No te he llamado, no.

Como ocurre muchas veces, un día se riñeron marido y mujer y a resultas, varias noches durmieron separados, uno en cada habitación, pero una noche se acostó el marido primero y luego fué la mujer y pegó en la puerta del cuarto:

–Kax, kax, kax.

Y el marido le contestó por dentro qué queria y la mujer le dijo:

–*¿Me has llamado?*

–*No, no te he llamado, pero como veo que quieres juntarte conmigo, entra.*

Contenta se vió la mujer y entró en la habitación y luego en la cama donde su marido y allí enseguida hicieron las paces.

5. Zer gauza pollita.

Oray urtean xey egun batez igan zen gizon bat bordala berze lanik gabe olloen guardatzra ta bordala eldu bezain fite atea idiki zaben elkiztren kanpo ta arek askaria egin zuen ta askaldu zuen borda barnean, ta gero bordan berokiari leitu zuen periodikoa puntaz punta, ta egordikoan asi zen olloen kontatzen ta irur falta zren. Asi zren beriala deitzen baya oraño eztra agertu: gizonak deus guart eman gabe axariak irur olloak eman zazkon.

